

# B euskararen BERRIPAPERA

## Udako Euskal Unibertsitatearen zilarrezko ezteiak

**1** 997an Udako Euskal Unibertsitateak zilarrezko ezteiak egin ditu, 1973an Donibane-Lohizunen sortu zenetik 25 urte pasa baitira. Euskara eta unibertsitatea uztartzeko nahiarekin sortu zen eta alor horretan oraindik ere hutsune batzuk daudela eta, etengabe darrai Euskal Herri osoa hartu eta euskara lan eta komunikazio tresna nagusitzat edukiko duen Euskal Unibertsitatea garatzen lagutzen.

### Lehen aldia: Donibane-Lohizune

UEUren lehen arrastoak Baionan daude; Baionako Euskal Museoan Kultur Asteak egiten ziren urterro, Euskaldunen Biltzarra, Ikas eta Fededunak elkarteek antolatuta eta Piarres Xarriton eta Jean Haritschelhar antolatzaile nagusi zirela. Euskal kultura —erlijio gaiak tarteko— lantzea, euskaldunek elkarren berri izatea eta lan-taldeak eratzea ziren topaketen helburu nagusiak. Katalanek Roselló aldean abiarazitako Universitat d'Estiú izeneko ekimenaren antzera, Baionako Kultur Asteari jite berria eman eta Udako Unibertsitate bilakaraztea proposatu zuen Karlos Santamaria euskaltzale eta pentsalariak. Donibane-Lohizuneko Maurice Ravel lizeoan egin zituen UEUK estreinako saioak 1973ko abuztuaren 28tik irailaren 8ra. Lehenengo saio haiek hitzaldiak izan ziren, euskal kulturako pertsona ezagunek emanak. Bere txikian, 80 bat partaide, lehenengo ekital-

di hura euskal kulturaren bilgune izan zen. 1974an ere leku berean izan zen eta egitura beretsuarekin, baina berrikuntza batekin: eskola magistralen eredu ez zen aldatu, baina bi lan-taldek hartu zuten parte, Leioako Euskal Kultur Mintegiak eta Elhuyar Kultur Elkarteak.

entzunda Hegoaldera eramatea erabaki zen.

### Hirugarren aldia: UEU Iruñean eta Baionan

Ekitaldirako baimena lortzea zail suertatu bazen ere, baimena iritsi zen eta UEUK aldi berri



### Bigarren aldia: Uztaritze

1975 eta 1976an Uztaritze izan zen UEUren egoitza; talde eragile bat sortu zen, ikastaroak antolatu eta dirulaguntzak lortzeko. 1975ean UEUK lehenengo manifestua egin zuen benetako euskal unibertsitatearen beharra aldarrikatuz. Hegoaldeko ikasle anitz hurbildu zen bertara eta espezializazioranzko lehen urratsa eman zen: arratsaldeko mintegietan zientziak eta letrak bereizi egin ziren. UEU Iparraldetik Hegoaldera eramatearen inguruko eztabaida zabaldu zen; aldeko eta aurkako argudioak

bati ekin zion Iruñean. 1977ko ekitaldi hura oso garrantzitsua izan zen: Hegoaldeko lehenengo goa zen, ikastaldi berezituak antolatu ziren, lehen liburuak argitaratu zituen, etab. Geroztik, bide horretan segitu du eta aldaketak izan dituen arren, ildo nagusia ordukoa da: euskararen militanteen lanari eta erakunde publikoen dirulaguntzari esker bizi da.

Hegoaldean finkatuz geroztik Iparraldeko partaideak galdu egin zituen UEUK eta horiek berreskuratzearren, bertako kultur premiei egokitutako ikastaroak ematen hasi zen Baionan 1985ean;

## SUMARIOA

- 1 Udako Euskal Unibertsitatearen zilarrezko ezteiak
- 2 Euskalgintza deialdia
- 3 Deialdiak
- 4 Euskal prentsarako dirulaguntzak

geroztik bide bikoitz horri eutsi dio: Iruñea eta Baiona.

### UEU urte osoan lanean

UEUren lana, ordea, ez da udara bakarrik mugatzen; ikastaro nagusiez gain dibulgazio-mailako hitzaldi-zikloak antolatzen ditu urtean zehar. 1985az geroztik, liburugintzan urte osoko lanean dihardu eta giza eta gizarte-zientzietako *Uztaro* lauhilabetekaria argitaratzen du (1990az geroztik).

### UEU eta herri-agintekak

UEU aspalditik ari da lanean Hezkuntza Sailarekin ohiko jarduna hitzarmen bidez arautu eta bideratzeko. Horrezaz gain, Hizkuntza Politikarako Sailordetzak ekintza jakinak bideratzeko dirulaguntzak eman ohi dizkio, esaterako *Uztaro* aldizkaria eta 25. urteurrenaren ospakizunek eragindako defizitak arintzen laguntzeko.

Azkenik, beste zenbait ikastaro antolatzeko harremanak ditu Eusko Jaurlaritzako HAE Erekin zein HABE Erekin, eta Nafarroako Gobernuarekin.

# Euskalgintza deialdia

**E**uskara sustatzeko, garatzeko edota normalizatzeko dirulaguntzak eskuratzeko aurkeztutako eskabideak aztertzeko, uztailaren 3an Gasteizen, bildu zen epaimahaia.

Bederatzi lagun izan ziren epaimahaikide: Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetzako bost kide -bi ordezkari eta hiru teknikari-, Euskararen Aholku Batzordeko bi kide, eta aholkulari gisa euskalgintzan aritutako bi kide.

Guztira 65.000.000 pta. banatu dira aurkeztutako eskabideen artean. Horietatik 15.000.000 pta. enpresetan euskararen erabilera areagotzeko planak, hain zuzen ere, kasuan kasuko planaren bideragarritasuna, diseinua, eta jarraipena egiteko emango dira. Horrela, 1997 baino lehenagotik plana abiarazita zuten enpresek, hau da, CAF, Fagor-Ederlan, Arlan, Elay, Ikerlan eta MCC Zerbitzuak enpresek 6.000.000 pezeta jasoko dituzte guztira; eta 1997an plana abiarazteko diren enpresei, Irizar Kooperatiba, Alecop, Alejandro Altuna S.A., Maier Kooperatiba, Fagor



Elektratresnak eta Fagor Sistemak enpresei 9.000.000 pezeta emango zaie.

Bigarrenez, euskararen ondarea jaso, gorde eta gizarteratzeko egitarauak laguntzeko, 10.000.000 pezeta banatuko dira egitasmo hauen artean: Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen *Xenpelar Dokumentazio Zentrua*, Bizkaiko Ikastolen Elkarte eta Labayru Ikastegiaren *Urte Sasoiak* izeneko programa, Oarso Kultur Fundazioaren *Oarsoaldeko Lanbide Zaharrak* izeneko bideo dokumental sorta, eta Loramendi Kultur Elkartearen *Deba garaiko euskalkiak* egitasmoa.

Euskaraz egindako materialak sustatzeko eta bideragarriago egiteko ekimenetarako edo ekintza programetarako 10.000.000 pezeta zeuden aginduta. Hala ere, atal honetan 7.073.349 pezeta banatu dira eta soberakina, hau da 2.926.651 pta., hurrengo atalera pasa da Tinko Elkartearen *Euskara Zine Aretoetara* egitasmoa, Txatxilipurdi elkartearen *Hizkuntzaren arlo ezberdinak sustatzeko errekurtsio bilduma*, Donostiako Gotzaindegiaren *The Beginners Bible* bildumako zazpi bideo bikoizteko egitasmoa, Erein S.A. enpresaren *Haur prentsa Ahoz aho belaunez belaun erakusketarekin* proiektua, Bizkaiko Ikastolen Elkartearen *Nor da Nor?* jokoaren moldaera, Erein S.A. enpresaren *Ipurbeltz erakusketa ibiltaria* egitasmoa, Labayru Ikastegiaren *Irratsaio literarioa*, Artez Euskara Zerbitzuaren *autotesta* egitasmoa eta Udako Euskal Unibertsitatearen *aurkezpen-hitzaldiak*, izango dira atal honetatik dirulaguntza jasoko dutenak.

✓ **Enpresetan euskararen erabilera areagotzeko planak egiteko 15.000.000 pta. emango dira.**



✓ *Irratietan euskararen erabilera sustatzeko 8.000.000 pta. banatuko dira.*

Aurreko multzoko soberakina, esan bezala, euskarazko irakurzaletasuna sustatzeko atalera pasa da. Beraz 9.926.651 pezeta banatu dira egitasmo hauen artean: Euskal Idazleen Elkartearen *Idazleekin solasean* programa; Europa Press Ordezkaritzaren *Hizkuntz Normalizaziorako Batzordea*; Zeruko Argiaren *Bizkaiko AEK eta ARGIAren arteko lankidetz*a egitasmoa; Euskerazaleen *ZER* aldizkaria; Zeruko Argiaren *Argia Biziagoaren urtea* egitasmoa; Bagera elkartearen *Irakurxale* egitasmoa; Donostiako Gotzaindegiaren *Elizen Arteko Biblia* liburuaren argitalpena; Euskalkiz-Euskalki taldearen *7 Baietz!* aldizkaria; Erein enpresaren *Prentsa Festa Durangoko Azokan* egitasmoa; Irakasle Eskolaren *Haur-liburu erakusketa*; Jardun Elkartearen *Amodiozko gutunen eta komiki* lehiaketak; Berbaro Elkartearen *Ipuin lehiaketa*; Beste bat! Musikazaleen Elkartearen *Entzun* aldizkaria; Eta Kitto! Elkartearen *Euskarazko irakurzaletasuna sustatzeko egitarauak*; Elhuyar Elkartearen *Hitzaldiak*; eta Arrasate Euskaldundu Dezagun Elkartearen *Jokin Zaitegi itzulpen laburren sariketa*.

Irratietan euskararen erabilera sustatzeko 8.000.000 pta. banatu dira egitasmo hauen artean: Irratibide enpresak aurkeztutako *Bizkaia Irratiaren* programazioa, 5.517.241 pta., Arrate Irratiaren programazioa, 2.068.966 pta., eta Zenbat Gara Kultur Elkarteak aurkeztutako *Bilbo Hiria Irratiaren* programazioa.

Azkenik, bestelako egitarauak laguntzeko 15.000.000. pezeta banatu dira. Atal honetan 80 egitasmo inguru aurkeztu dira, eta horietatik 46 proiektu lagunduko dira diruz. Horietatik hamar egitasmok 500.000 pezetatik gorako dirulaguntza jasoko dute; bestetik 100.000 eta 500.000 pezeta artean jasoko dute aurkeztutako hogeit hamar proiektuk; 50.000 eta 100.000 pezeta arteko kopurua eskuratuko dute beste hamar egitasmok eta, azkenik, atal honetan aurkeztutako sei egitasmok 50.000 pezeta baino gutxiago jasoko dute.

## DEIALDIAK

### Julene Azpeitia X. Ipuin Lehiaketa

Zumaiako Udalak antolatutako lehiaketa honetara euskaraz idatzitako lan orijinalak eta argitaragabeak aurkez daitezke. Gaia librea da eta luzera, gutxienez 12 foliokoa. Hiru sari emango dira: lehenengoa 325.000 pezetakoa, bigarrena 150.000 pezetakoa eta hirugarrena, 125.000 pezetakoa, Zumaiar baten lan hoberenarentzat izango da. Lanak aurkezteko epea irailaren 30ean amaituko da.

### Jokin Zaitegi Itzulpen Laburren XI. Saria

Arrasateko AED Elkarteak, Gipuzkoa Donostia Kutxaren eta Arrasateko Udalaren laguntzarekin, JOKIN ZAITEGI ITZULPEN LABURREN XI. SARIKETArako deialdia zabaldu du itzulpengintza sustatzeko. Lehiaketa honetan edozeinek har dezake parte eta gaia librea izango da; edozein hizkuntzatatik —gazteleratik izan ezik— itzulitako idazlanak aurkez daitezke. Lanak 1997ko urriaren 31 baino lehen bidali behar dira. Epaimahaiak finalisten zerrenda abenduaren 10erako jakinaraziko du eta behin betiko erabakia abenduaren 19an Santamasetan egingo den ekitaldian emango da ezagutzera.

# Euskal prentsarako dirulaguntzak

**P**rentsa idatzian euskararen erabilera sendotu eta indartzeko eta euskal prentsa egitasmoak bideragarriago egiteko dirulaguntzak eskatuz aurkeztutako eskariak aztertzeo epaimahia bildu zen ekainaren 16an Gasteizen.

Sei lagun izan ziren epaimahaikide: Hizkuntza Politikarako Sailordetzako hiru kide -ordezkari bat eta bi teknikari-, Kultura Ondarearen Zuzendaritzako ordezkaria, Euskal Herriko Unibertsitateko ordezkaria, eta Euskararen Aholku Batzordekoa.

Guztira 48 prentsa egitasmo aurkeztu dira. Epaimahaiaren proposamenaren arabera dirulaguntzak horrela banatuko dira:

- × Euskararen esparru geografikoko eguneroko prentsa atalean, 120.000.000 pezeta emango zaizkio *Euskaldunon Egunkariari*.
- × Euskararen esparru geografikoko astekarren atalean, *Argia* aldizkariak 15.000.000 pezeta jasoko ditu.

- × Euskararen esparru geografikoko haur eta gazte aldizkariaren artean 13.100.000 pezeta banatuko dira: *Ipurbeltz* (3.914.213 pta.), *Kili-Kili* (3.246.882 pta.), *Xirrixta* (4.534.044 pta.) eta *Kometa* (1.404.861 pta.).

Hiru atal horietako bakoitzarekin, hau da, Egunkaria, Argia, Ipurbeltz, Kili-Kili, Xirrixta eta Kometa aldizkariarekin hitzarmenak sinatuko ditu Kultura Sailak.

Euskararen esparru geografikoko bestelako aldizkarietara, berriz, 20.000.000 pezeta banatuko zaizkie. *Bertsolari*, *Elhuyar*,

*Karmel*, *Hegats*, *Bat*, *Egan*, *Euskerazaintza*, *Napartheid*, *Jakin*, *Ostiela!* eta *Uztaro* aldizkariak izango dira kasu honetan dirulaguntza jasotzaileak. Multzo honetan 1.322.450 pezeta banatu gabe gelditu dira eta deialdian esaten zen bezala, diru kopuru hori herri eta toki mailako aldizkariaren multzora pasako da. Azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoko herri eta toki mailako aldizkariaren artean aurreikusita zegoen kopurua, hau da, 30.000.000 pezeta gehi aurreko multzoaren soberakina,

1.322.450 pezeta, banatuko dira. Kasu honetan, eta deialdian zehazten zen moduan, dirulaguntza jasotzeko aldizkariak ziurtagiri bidez egiaztatu beharko dute dagokion Udaletik edo Foru Aldunditik jaso duten dirulaguntza. Aldizkariak ziurtagiria aurkezteko irailaren 15a arteko epea izango dutenez, multzo honetako dirulaguntzak irailean erabakiko dira, epaimahaiak behin behineko proposamena egina badu ere. Multzo horretan soberakinik izanez gero, euskararen esparru geografikoko aldizkariaren esparrura pasako da, 10.000.000 pezetatik gorako aurrekontuak dituzten aldizkarietara, Jakin eta Elhuyarrera hain zuzen.



**Euskararen Berripapera** zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

**Hizkuntza Politikarako Sailordetza**

Wellingtongo Dukea, 2  
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Euskaraz  Gaztelaniaz

Izen-deiturak: .....

.....

.....

Helbidea:.....

.....

.....

Herria: .....

Kodea:.....

Lurraldea:.....

Tel.:.....